



**Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia**

**Lekualdatze-lehiaketaren deialdiaren oinarriak, merezimendu-lehiaketaren prozeduraren bidez, Amorebieta-Etxanoko Udalean hutsik dagoen administari lanpostu bat betetzeko.**

**LEHENENGOA.- DEIALDIAREN XEDEA**

Deialdi honen xedea merezimendu-lehiaketaren prozeduraren bidez lanpostu bat betetzea da, Amorebieta-Etxanoko Udaleko karrerako funtzionarioen lekualdatzeko sistema irekiaren bidez, Kontu-hartzaitzako Arloan hutsik dagoen administrari lanpostu bat betetzeko.

**BIGARRENA.- IZANGAIEN BETEKIZUNAK**

Lehiaketa honetan parte hartu ahalko dute honako betekizun hauek betetzen dituzten pertsonak:

- Europako Erkidegoko herritarra izatea edo, atzerritarra izatekotan, legezko egoitza Espainian izatea.
- Eginkizunak burutzeko gaitasun funtzionala izatea.
- Hamasei urteak beteta izatea eta, hala badagokio, nahitaezko erretirorako gehieneko adina ez gainditzea. Soilik legez ezarri ahalko da beste gehieneko adin bat, nahitaezko erretirorako adinaren bestelakoa, enplegu publiko bat eskuratzeko.
- Estatuko, autonomia erkidegoetako edo tokiko erakundeetako zerbitzutik diziplina espediente baten bidez kanporatuta egon ez izana eta eginkizun publikoak burutzeko ezgaituta ez egotea.
- Ezingo dute deialdi honetan parte hartu deialdi honen bidez bete nahi den lanpostuaren eginkizunak burutzea eragozten dien gaixotasunen bat edo defektu fisiko edo psikikoren bat duten pertsonak; edozein herri-administrazioetik diziplina-espediente baten bidez zerbitzutik kanporatuak izan diren pertsonak edo eginkizun publikoak egikaritzeko ezgaiturik daudenak.
- Batxiler-titulua, lanbide-heziketako bigarren mailako titulua edo baliokidea den titulazioa edukitzea eskaerak aurkezteko epea bukatzen denerako.
- Karrerako funtzionario gisa Administrazio Orokorreko Eskalako kide izatea,

**Bases de la convocatoria de concurso de traslado para la provisión mediante procedimiento de concurso de méritos, de un puesto administrativo vacante en el Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano.**

**PRIMERA .- OBJETO DE LA CONVOCATORIA**

Es objeto de la presente convocatoria la provisión de un puesto de trabajo por el procedimiento de Concurso de Méritos, mediante el sistema de traslado abierto al personal funcionario de carrera del Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano con el fin de cubrir un puesto de Administrativo vacante en el Area de Intervención.

**SEGUNDA.- REQUISITOS DE LOS ASPIRANTES**

Podrán participar en el presente concurso quienes reúnan los siguientes requisitos:

- Ser ciudadano comunitario o bien ser extranjero con residencia legal en España.
- Poseer la capacidad funcional para el desempeño de las tareas.
- Tener cumplidos dieciséis años y no exceder, en su caso, de la edad máxima de jubilación forzosa. Sólo por ley podrá establecerse otra edad máxima, distinta de la edad de jubilación forzosa, para el acceso al empleo público.
- No haber sido separado mediante Expediente Disciplinario del Servicio del Estado, Comunidades Autónomas o las Entidades Locales, ni hallarse inhabilitado para el ejercicio de funciones públicas.
- No podrán tomar parte en esta convocatoria el personal que padezca enfermedad o defecto físico o psíquico que impida el desempeño de las funciones del puesto cuya provisión se convoca, que haya sido separado del servicio mediante expediente disciplinario de cualquier administración pública o que se ha halle inhabilitado para el ejercicio de las funciones públicas.
- Estar en posesión de la titulación de Título de bachiller, formación Profesional de segundo grado, o equivalente, en la fecha en que termine el plazo de presentación de instancias.
- Pertener como funcionario de carrera a la Escala de Administración General, Subescala



**Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia**

Administrari Azpieskala, titulazioko C1 Taldekoa; zerbitzu aktiboko egoeran egotea eta bi urtez zerbitzuak eman izana C1 azpataldean Amorebieta-Etxanoko karrerako funtzionario gisa.

Administrativo, del subgrupo C1 de titulación, hallarse en situación de servicio activo y haber completado dos años de servicios en el subgrupo C1 como funcionario de carrera del Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano.

**HIRUGARRENA.- BETE BEHARREKO LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK**

Lanpostua Administrazio Orokorreko Eskalako da, "Administrari" Azpieskala, C talde profesionalari dagokiona, C1 azpataldea, lanpostu-mailako osagarriaren 19 maila, nahitaezko euskarako III profila; hala, lanpostu hori hutsik dago Amorebieta-Etxanoko Udaleko administrari langileen lanpostuetan.

**TERCERA.- CARACTERÍSTICAS DEL PUESTO DE TRABAJO A CUBRIR**

El puesto pertenece a la Escala de Administración General, Subescala "Administrativo", correspondiente al Grupo profesional C, subgrupo C1, nivel 19 de complemento de destino, Perfil III de euskera preceptivo, vacante en la plantilla de administrativos del Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano.

**LAUGARRENA.- LANPOSTUAREN EGINKIZUNAK**

- Jasotako fakturak erregistratzea kontabilitateko erregistroan eta arlo eskudunera bidaltzea horrek fakturak izapidetzeko.
- Gastuaren RC, A, A-D-AD-O-ADO aurrekontu-faseak zenbatzea.
- BEZaren likidazioa
- Hornitzaileei eta kontratistei arreta ematea fakturak izapidetzeko.
- Partiden egikaritze-egoeraren berri ematea eskatzen duten zinegotziei edo arloko arduradunei.
- Izapidetzeko eta dagokion sailarekin elkarlanean aritzeko administrazio-lanak egitea.
- Halaber, kontu-hartzaileak agintzen dizkion lanak egingo ditu, lanpostua lortzeko eta horretan jarduteko eskatutako prestakuntzarekin bat etorritz, aurretik jasotakoak gorabehera.

**CUARTA.- FUNCIONES DEL PUESTO**

- Registrar en el registro de contabilidad las facturas recibidas y enviarlas al área competente para su tramitación.
- Contabilizar las fases presupuestarias del gasto RC, A, A-D-AD-O-ADO.
- Liquidación del IVA
- Atender a los proveedores y contratistas para la tramitación de las facturas.
- Informar sobre el estado de ejecución de las partidas a los concejales o responsables de área que lo soliciten.
- Realizar las tareas administrativas de trámite y colaboración con el Departamento al que pertenece.
- Realizar, asimismo, aquellas tareas que se le encomienden, por el/la Interventor/a, acordes con la cualificación requerida para el acceso y desempeño del puesto, sin perjuicio de las relacionadas anteriormente.

**BOSGARRENA.- ESKAEREN AURKEZPENA**

Deialdian parte hartzeko, eskaera bat aurkeztuko da, oinarri hauen I. Eranskinarekin bat etorritz. Eskaera hori behar bezala beteko da eta, bertan, eskaerak aurkezteko epearen amaierarekin lotutako lehenengo oinarrian ezarritako parte hartzeko betekizunak betetzen direla adieraziko dute.

**QUINTA.- PRESENTACIÓN DE INSTANCIAS**

Para tomar parte en la convocatoria se presentará instancia conforme al Anexo I de las presentes bases, debidamente cumplimentada, en la cual manifestarán que reúnen los requisitos de participación establecidos en la base primera, referida a la fecha de terminación del plazo de presentación de instancias.

Eskaerak aurkezteko epea **HAMABOST LANEGUNEKOA** izango da, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Hala, udaleko presidentetzari zuzenduko zaizkio eta erregistro nagusian aurkeztu beharko dira.

El plazo de presentación de instancias será de QUINCE DIAS HABILES contados a partir del siguiente al de la publicación del anuncio en el Boletín Oficial de Bizkaia. Irán dirigidas a la Presidencia del Ayuntamiento, debiendo presentarla en el Registro General.

Eskaerarekin batera, honakoa erantsiko da:

A la solicitud se adjuntará:



## Amorebieta-Etxanoko Udala Bizkaia

- NANaren fotokopia

Interesdunak alegatutako eta oinarri hauen arabera balioztatu behar diren merezimenduak justifikatzeko dokumentazioa. Dokumentazioa originala edo konpultsatutako kopia izan beharko da.

Eskaerak aurkezteko epea igarotakoan, iragarki baten bidez argitaratuko da onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda, baztertzeko kausa adieraziz, hori zuzendu ahal izateko. Zuzenketa hori HAMAR LANEGUNEKO EPEAN egingo da iragarki hori korporazioaren iragarki-oholean argitaratzen denetik zenbatzen hasita; beraz, argitalpenaren data izango da epeak ezarriko dituen, aurkapenak egite aldera edo errekurtsioak aurkezte aldera.

Eskaerak zuzentzeko epea amaitutakoan, iragarki bat argitaratuko da onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrendarekin, korporazioaren iragarki-oholean argitaratuko dena.

### SEIGARRENA.- BAREMOAK

### MEREZIMENDUEN

Deitutako lanpostuen adjudikazioan lehenetsun-hurrenkera ezartzeko, honako merezimendu hauek balioztatuko dira:

#### A. ANTZINATASUNA

1. Antzintasuna: Herri-administrazio desberdinetan administrari azpieskalan emandako zerbitzu aktiboko urteak baloratuko dira eta puntu bana emango da zerbitzuak emandako urte oso bakoitzeko. **Gehienez ere, 5 puntu emango dira.** Sei hilabeteko edo gehiagoko frakzioa, zerbitzuetako urte osora heltzen ez bada, 0,70 punturekin baloratuko da.

#### B. PRESTAKUNTZA

1. Titulazio akademikoa: Ekonomia eta Enpresa Zientzietako, Enpresen Administrazioeko edo Zuzenbideko titulazio akademikoa edukitzea baloratuko da, dagokion titulazio-taldearen kide izateko eskatutakoa izan ezik; **gehienez ere, 3 puntu emango dira**, honela banatuta:
  - a) Diplomatura edo lehenengo zikloa edo unibertsitate-ikasketetako hiru urte: Puntu bat.
  - b) Lizentziatura edo gradua: 2 puntu
2. Prestakuntzako eta Hobekuntzako ikastaroak: Interesdunak egindako edo emandako eta edozein zentrok, organismo ofizialak edo

- Fotocopia del DNI.

- Documentación justificativa de los méritos alegados por el interesado/a y que deban valorarse con arreglo a las presentes bases. La documentación deberá ser original o copia compulsada.

Expirado el plazo de presentación de solicitudes se publicará a través de anuncio, la lista provisional de aspirantes admitidos y excluidos, indicando la causa de exclusión a fin de que puedan subsanarla, dentro del plazo de DIEZ DÍAS HÁBILES a contar a partir de la publicación del referido Anuncio en el Tablón de anuncios de la Corporación, siendo la fecha de publicación determinante de los plazos a efectos de posibles impugnaciones o recursos.

Concluido el plazo para subsanación de instancias se publicará anuncio con la relación definitiva de aspirantes admitidos y excluidos, que se hará público en el Tablón de Anuncios de la Corporación.

### SEXTA.- BAREMOS DE MÉRITOS

Para fijar el orden de preferencia en la adjudicación de los puestos de trabajo convocados se valorarán los siguientes méritos:

#### A. ANTIGÜEDAD

1. Antigüedad: Se valorarán los años de servicio activo en la Subescala administrativo en las distintas Administraciones Públicas, a razón de 1 punto por cada año completo de servicios, **hasta un máximo de 5 puntos.**  
  
La fracción igual o superior a seis meses que no alcance el año completo de servicios se valorará a 0,70 puntos.

#### B. FORMACIÓN

1. Titulación académica: Se valorará la posesión de titulación académica en Económicas, Empresariales, Administración de empresas o Derecho, excluida la exigida para pertenecer al respectivo grupo de titulación, y puntuará **como máximo 3 puntos**, distribuido de la siguiente forma:
  - a) Diplomatura, o primer ciclo o tres años de estudios universitarios: 1 punto.
  - b) Licenciatura o grado: 2 puntos
2. Cursos de Formación y Perfeccionamiento: Se valorarán los cursos de formación y



### Amorebieta-Etxanoko Udala Bizkaia

unibertsitateak deitutako eta langile publikoei zuzendutako prestakuntzako eta hobekuntzako ikastaroak baloratuko dira; horiengatik, gehienez ere, 4 puntu emango dira, honako eskalaren arabera:

- 100 ordu edo gehiagokoak: 2 puntu.
- b) 75 ordu edo gehiagokoak: 1.50 puntu.
- c) 50 ordu edo gehiagokoak: Puntu bat.
- d) 25 ordu edo gehiagokoak: 0.50 puntu.
- e) 15 ordu edo gehiagokoak: 0.20 puntu.

Lehiaketaren xede den lanpostuaren eginkizunekin zuzenean lotutako prestakuntza baino ez da baloratuko, hau da, Ogasun Publikoarekin, Aurrekontuekin eta Tokiko Administrazioaren Kontabilitatearekin eta kontabilitateko aplikazioekin lotutakoak.

#### 3. Ofimatikako ikastaroengatik, **gehienez ere, puntu bat emango da:**

Zentro Ofizialek emandako ofimatikako ikastaroak egiteagatik: 0,025 puntu ordu bakoitzeko.

IT Txartela ziurtagiriak egiaztatzeagatik (ofimatikako moduluak), azterketan sartzen direnak izan ezik:

Oinarrizko modulua: 0,12 puntu.

Modulu aurreratua: 0,25 puntu.

Horrenbestez, atal honetan lortu ahal den gehieneko puntuazioa **8 puntukoa** da.

Izangaiek, **gutxienez, 6,5 puntuazioa** lortu beharko dute lehiaketaren guztirako puntuazioan. Gutxieneko puntuazio hori ez lortzekotan, izangaia prozeduratik kanpo geratuko da.

### ZAZPIGARRENA.- EUSKARA

Profila nahitaezkoa dela kontuan hartuta, hizkuntza-eskakizun hori betetzea derrigorrezko betekizuna da dagokion lanpostuan jarduteko. Eskaerak aurkezteko epea bukatzen denean aurkeztu ezin bada, prozeduraren beste fase bat izango da, hau da, euskararen ezagutzaren hizkuntza-eskakizuna egiaztatzerako bideratutako probak egin beharko dira.

perfeccionamiento que hayan sido cursados o impartidos por el interesado y que hayan sido convocados por cualquier centro, organismo oficial o universidad, dirigida a los empleados públicos, **Puntuará hasta un máximo de 4 puntos** con arreglo a la siguiente escala:

- a) De 100 o más horas: 2 puntos.
- b) De 75 o más horas: 1.50 puntos.
- c) De 50 o más horas: 1 punto.
- d) De 25 o más horas: 0.50 puntos.
- e) De 15 o más horas: 0.20 puntos.

Solamente se valorará la formación directamente relacionada con las funciones del puesto de trabajo objeto del concurso, es decir los referidos a materia de Hacienda pública, Presupuestos y contabilidad en la Administración Local y aplicativos de contabilidad.

#### 3. Cursos de ofimática, **hasta un máximo de 1 punto:**

Por la realización de cursos de ofimática impartidos por Centros Oficiales: 0,025 puntos por cada hora.

Por la acreditación de las certificaciones IT Txartela (módulos de ofimática), excluidas las que son objeto de examen:

Módulo básico: 0,12 puntos.

Módulo avanzado: 0,25 puntos.

La puntuación máxima a obtener en este apartado será, en consecuencia, de **8 puntos**.

Los aspirantes deberán obtener **una puntuación mínima de 6,5 puntos** en el total de la puntuación del concurso. En caso de no alcanzarse esta puntuación mínima, el aspirante queda eliminado del procedimiento

### SÉPTIMA.- EUSKERA

Teniendo en cuenta que el perfil es preceptivo, el cumplimiento del perfil lingüístico es exigencia obligatoria para el desempeño del correspondiente puesto de trabajo. En caso de no poder acreditarlo a la fecha que concluya el plazo de presentación de instancias, constituye una fase más del procedimiento la realización de las pruebas encaminadas a la acreditación del perfil lingüístico del conocimiento de Euskera.



**Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia**

**ZORTZIGARRENA.- EPAIMAHAIA: OSAERA,  
IZENDAPENA ETA JARDUKETA.**

Epaimahai kalifikatzailearen osaera Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 5/2015 Legeak ezartzen duenera egokituko da. Epaimahaiko kideak banaka izendatuko dira eta dagozkien ordezkioak hartuko dira barne. Izendapena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, hala badagokio, korporazioaren iragarki-oholean, bidezkoa izatekoan, edo udalaren webgunean.

Epaimahaiko kideek deitutako lanpostuak lortzeko eskatutako titulazio edo espezializazio maila bera edo altuagoa izan beharko dute. Epaimahaiak aholkulari espezialistak izendatu ahalko ditu; horiek epaimahaiaren izendapena argitaratzean jakinarazi beharko dira eta iritzia eman ahalko dute baina ez dute bozkatzeko eskubiderik izango. Epaimahaiko kide gisa jarduteko proposatutako edo izendatutako pertsonak kide izateaz abstenitu beharko dira Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako egoerak ematen direnean. Horrela izatekotan, Alkatetza-Presidentetzari jakinarazi beharko diote. Epaimahaia ezingo da eratu eta ezingo du jardun kideen edo ordezkioen erdia baino gehiago ez badago. Epaimahaiko kideek konfidentzialtasuna eta lanbideko isiltasuna behatu beharko dituzte bileretan jorrotutako gaiekin lotutako guztiari dagokionez. Izan ere, bilera horietatik kanpo, ezingo dute epaimahaiko kide gisa duten eta epaitzeko izendatuak izan diren hautapen-prozesuarekin lotutako informazio hori erabili. Epaimahaiak ahalmena dauka interpretazioari eta oinarri hauetan aurreikusita ez dagoenari dagokionez sortzen diren zalantza guztiak argitzeko, baita proben funtzionamendu ona bermatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzeko ere.

Deialdi honetako epaimahaiko kideei aplikatuko zaie Zerbitzugatiko kalte-ordainei buruzko maiatzaren 24ko 462/2002 Errege Dekretuaren 30. artikulua bigarren kategorian. Adituek edo espezialistek aparteko haborokina jaso ahalko dute, egiten dituzten lanen arabera, Alkatetzaren Ebazpenaren bidez.

**BEDERATZIGARRENA.- ADJUDIKAZIO-  
PROPOSAMENA.**

Lanpostuen adjudikazioa bosgarren oinarrian deskribatutako baremoa aplikatzearen ondorioz ezarritako hurrenkeraren arabera egingo da.

Baremoaren aplikazioaren emaitza handienetik txikienera ordenatuko da eta atal bakoitzean lortutako puntuazioa adieraziko da, adjudikatutako lanpostua

**OCTAVA.- TRIBUNAL: COMPOSICIÓN,  
DESIGNACIÓN y ACTUACIÓN.**

El Tribunal Calificador se ajustará en su composición, a lo que determine la Ley 5/2015, del Estatuto Básico del Empleado Público. La designación de los miembros del Tribunal será a título individual e incluirá a los respectivos suplentes. Se hará pública en el Boletín Oficial de Bizkaia y, en su caso, en el Tablón de Anuncios de la Corporación, si procediere, o en la página web del Ayuntamiento.

Los vocales del Tribunal deberán poseer titulación o especialización igual o superior a las exigidas para el acceso a las plazas convocadas. Podrán nombrarse asesores especialistas por el Tribunal, que deberán hacerse públicos junto con el mismo y podrán actuar con voz pero sin voto. Las personas propuestas o designadas para actuar como miembros del Tribunal deberán abstenerse de formar parte del mismo cuando concurren las circunstancias previstas en el art. 23 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, notificándolo a la Alcaldía-Presidencia. El Tribunal no podrá constituirse, ni actuar sin la asistencia de más de la mitad de sus miembros o suplentes indistintamente.

Los miembros del Tribunal observarán la confidencialidad y el sigilo profesional en todo lo referente a las cuestiones tratadas en las reuniones, no pudiendo utilizar fuera de las mismas la información que posean en su calidad de miembros del Tribunal referida al proceso selectivo para el que han sido nombrados.

El Tribunal queda facultado para la resolución de cuantas dudas se presenten en la interpretación, así como en lo no previsto en las presentes bases y adoptar los acuerdos necesarios para el buen funcionamiento de las pruebas.

Serán de aplicación a los miembros del Tribunal de la presente convocatoria la categoría segunda del artículo 30 del Real Decreto 462/2002, de 24 de mayo, sobre indemnizaciones por razón del servicio. Los expertos o especialistas podrán recibir gratificación aparte, en función de sus trabajos por Resolución de la Alcaldía.

**NOVENA.- PROPUESTA DE ADJUDICACIÓN.**

La adjudicación de puestos se efectuará según el orden de prelación resultante de aplicar el baremo descrito en la base quinta.

El resultado de la aplicación del baremo, ordenado de mayor a menor, indicando la puntuación obtenida en cada apartado, con expresión del destino adjudicado, se pondrá de manifiesto mediante su publicación en el



### **Amorebieta-Etxanoko Udala Bizkaia**

jasoz. Hala, emaitza hori iragarki-oholean argitaratuz jakinaraziko da eta hamar laneguneko epea emango da baremazioari dagokionez egoki deritzen erreklamazioak aurkezteko.

Azkenengo puntuazioan berdinketa egotekotan, hurrenkera honen arabera ebatziko dira: euskarako 4. hizkuntza-eskakizuna duela egiaztatzen duen izangaiaren alde; Amorebieta-Etxanoko Udalean administrari azpieskalan antzintasun gehiago duen izangaiaren alde eta udaleko funtzionario gisa antzintasun gehiago duen izangaiaren alde.

#### **HAMARGARRENA.- EBAZPENA.**

Aurreko oinarrian adierazitako epea igarotakoan eta, hala badagokio, erreklamazioak ebatzi ostean, lanpostua adjudikatzeko behin betiko proposamena egingo da. Hori udaleko presidentetzaren ebazpenaren bidez ebatziko da eta udalaren iragarki-oholean argitaratuko da.

Lehiaketa ebatzteko epea, gehienez ere, hilabetekoa izango da, eskaerak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

#### **HAMAİKAGARRENA.- ATZERA EGITEA ETA UKO EGITEA.**

Parte-hartzaile boluntarioek soilik egin ahalko dute atzera eskaeran horiek aurkezteko epearen barruan. Epe hori igarotakoan, ez da atzera egiterik onartuko. Beraz, parte-hartzaileak eskaerei eta lehiaketaren emaitzari lotetsita egongo dira.

#### **HAMABIGARRENA.- LANPOSTUAN SARTZEA.**

Izangaia lanpostuaz jabetu beharko da hamabost eguneko epean, ebazpena jakinarazten zaion hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Adierazitako epean egiten ez badu justifikatutako kausarik gabe, lanpostua ukatzen duela joko da.

#### **HAMAHIRUGARRENA.- LOTURA ETA ERREKURTSOAK.**

Oinarri hauek erakundea, ebaluazioko epaimahaia eta parte-hartzaileak lotzen dituzte. Interesdunek deialdi hau eta horren oinarriak aurka ditzakete, Herri-administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoaren arabera edo administrazioarekiko auzi-errekurtsu bat aurkeztuz bi hilabeteko epean Administrazioarekiko Auzien Epaitegien aurrean.

Tablón de Anuncios, concediéndose un plazo de diez días hábiles para que formulen las reclamaciones que estimen pertinentes en relación con la baremación.

En el supuesto de empate en la puntuación final, se resolverán por este orden, a favor del aspirante que acredite tener el Perfil lingüístico 4 de Euskera, a favor del aspirante con más antigüedad en la Subescala de administrativo en el Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano y a favor del aspirante que tenga la mayor antigüedad como funcionario del ayuntamiento.

#### **DECIMA.- RESOLUCIÓN.**

Transcurrido el plazo señalado en la base anterior y, en su caso, resueltas las reclamaciones, se formulará la propuesta definitiva de adjudicación del puesto, que se resolverá mediante Resolución de la Presidencia del Ayuntamiento y se publicará en el Tablón de anuncios del Ayuntamiento.

La resolución del concurso será de máximo de un mes a contar desde el día siguiente de finalización del plazo de solicitudes.

#### **UNDECIMA.- DESISTIMIENTO Y RENUNCIA.**

Los participantes voluntarios solamente podrán desistir de su petición dentro del plazo de presentación de instancias. Transcurrido dicho plazo no se aceptará ningún desistimiento, por lo que los participantes quedan vinculados a sus solicitudes y al resultado del concurso.

#### **DUODECIMA.- INCORPORACION AL DESTINO.**

El aspirante deberá tomar posesión en el plazo de quince días, a contar del siguiente al que le sea notificada la resolución. Si no lo hiciera en el plazo señalado sin causa justificada, se entenderá que desiste del puesto.

#### **DECIMOTERCERA.- VINCULACIÓN Y RECURSOS.**

Las presentes bases vinculan a la Institución, al Tribunal de Evaluación y a los participantes. La presente convocatoria y sus bases pueden ser impugnados por los interesados conforme a lo prevenido en los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, o bien interponiendo recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo en el plazo de dos meses.



**Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia**

**I. ERANSKINA**

**ESKAERA**

**LEKUALDATZE-LEHIAKETAREN  
DEIALDIAREN OINARRIAK,  
MEREZIMENDU-LEHIAKETAREN  
PROZEDURAREN BIDEZ, AMOREBIETA-  
ETXANOKO UDALEAN HUTSIK DAGOEN  
ADMINISTRARI LANPOSTU BAT  
BETETZEKO**

**DEIALDIA**

Iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako data:

**DATU PERTSONALAK**

Lehenengo abizena:

Bigarren abizena:

Izena:

Sexua:

NAN (IFZren letra adieraziz):

Jaiotze-data:

Jaiotzeko herrialdea eta lekua:

Nazionalitatea:

Telefono finkoa:

1. mugikorra:

2. mugikorra:

Helbide elektronikoa:

Helbidea: kalea edo plaza, zenbakia, pisua, letra.

Posta-kodea:

Udalerria:

Probintzia:

Behean sinatzen duenak eskaera honetan jasotako lekualdatze-lehiaketan onartua izateko eskatzen du. Halaber, ADIERAZTEN du egiazkoak direla bertan emandako datuak eta funtzio publikoan sartzeko eskatutako baldintzak betetzen dituela eta bereziki aurretik aipatutako deialdiaren oinarrietan adierazitakoak. Horrez gain, eskaera honetan agertzen diren datu guztiak agiri bidez egiaztatzeke konpromisoa hartzen du.

.....(e)n, 2017ko

.....aren .....(e)(a)n

Sin.: .....

**AMOREBIETA-ETXANOKO  
PRESIDENTEA**

**UDALEKO**

**ANEXO I**

**I N S T A N C I A**

**BASES DE LA CONVOCATORIA DE  
CONCURSO DE TRASLADO PARA LA  
PROVISIÓN MEDIANTE EL PROCEDIMIENTO  
DE CONCURSO DE MÉRITOS, DE UN PUESTO  
DE ADMINISTRATIVO DE INTERVENCIÓN  
VACANTE EN EL AYUNTAMIENTO DE  
AMOREBIETA-ETXANO**

**CONVOCATORIA**

Fecha de publicación del anuncio en el BOP:

**DATOS PERSONALES**

Primer apellido:

Segundo

apellido:

Nombre:

Sexo:

DNI (indicando letra NIF):

Fecha nacimiento:

País y lugar de nacimiento:

Nacionalidad:

Teléfono fijo:

Móvil 1:

Móvil 2:

Correo electrónico:

Domicilio: calle o plaza, núm., piso, letra.

Código Postal:

Localidad:

Provincia:

El abajo firmante solicita ser admitido en el concurso de traslado a que se refiere la presente instancia y DECLARA que son ciertos los datos consignados en ella y que reúne las condiciones exigidas para ingreso a la Función Pública y las especialmente señaladas en las bases de la convocatoria anteriormente citada, comprometiéndose a probar documentalmente todos los datos que figuran en esta solicitud.

En ..... a ..... de .....  
de 2.017

Fdo.: .....

**EXCMO. SR. PRESIDENTE DEL AYUNTAMIENTO  
DE AMOREBIETA-ETXANO**



**Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia**

ALKATEA/EL ALCALDE,

Izp./Fdo.: Andoni Agirrebeitia Abendibar.